



---

# **IDAZKARITZAKO EGINBIDEA**

## **BILKURA BERTAN BEHERA UZTEA**

Aiarako Kuadrillako **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** ezohiko osoko bilkura egiteko deia egin du

**2020ko martxoaren 16rako**

**Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 109.2 artikuluan xedatutakoa betez, honako eginbide hau igorri da. Horren bitartez, jasota geratzen da 2020ko martxoaren 16an Tokiko Gobernu Batzordeak egin behar zuen ezohiko bilkura bertan behera geratu dela, Espainiar estatuan COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren egoerari aurre egiteko alarma-egoera dela eta. Alarma-egoera COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez.**

Aipatutako bilkura garaiz eta forman deituta zegoenez, bertan behera geratu behar izan zen, kide guztien adostasunez; izan ere, bertaratu gabeko saio telematikoa egiteko beharrezko teknologia eskasia zegoen, eta, gainera, aurrez aurreko bilkurarik ezin zen egin aipatutako Errege Dekretuaren arabera, pandemiak eragin litzakeen osasun arriskuak ekiditeko.

Egindakoa jaso da.

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.**

**IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA.**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**